

Jardueren Oroitidazkia 2012

SABINO ARANA FUNDAZIOA, 2012ko abendua

AURKIBIDEA

- 1.- BEKAK ETA IKERKETEN SUSTAPENA
- 2.- ARGITALPENAK
- 3.- HERMES PENTSAMENDU ETA HISTORIA ALDIZKARIA
- 4.- GOGOETA ETA ELKARRIZKETARAKO MINTZAGUNEA

Mintegiak
Hitzaldiak

- 5.- GAZTERIA
- 6.- EUSKARA
- 7.- ABERTZALETASUNAREN AGIRITEGI HISTORIKOA
- 8.- EUSKAL ABERTZALETASUNAREN MUSEOA
- 9.- SABINO ARANA SARIEN KULTUR JAIALDIA
- 10.- DURANGOKO AZOKA
- 11.- BESTE ERAKUNDE ETA INSTITUZIO BATZUEK ANTOLATUTAKO JARDUERETAN PARTE HARTZEA
- 12.-HEDAPENA ETA KOMUNIKAZIOA
- 13.- LORTUTAKO EMAITZEN BALIOESPENA

1.- BEKAK ETA IKERKETEN SUSTAPENA

1.1.- Alberto Onaindiaren Postatrukea 1936 eta 1945 bitartean

Oso tamaina handiko lan bat da; orain dela sei bat urte hasi zen, eta eginkizuna Vatikanoko Artxiboetan (Erroma) eta Estatuko beste artxibo batzuetan barreiatutako 4.000tik gora dokumenturen bilketa, transkripzioa eta oharpenak egitea izaten ari da. Helburua da, Agirre lehendakariaren laguntzaile izan zen Alberto Onaindia apaizaren 1936 eta 1945 bitarteko postatrukea berreskuratzea eta hark Gerra Zibilean zein II. Mundu Gerran egin zituen gestioen berri lortzea.

Ekitaldi honi, 2012koari, dagokionez, urte osoan jarraitu da aldeztu aurretik bildutako dokumentazioaren transkripzio-lana egiten. Gaur egun, esan behar da, 1941eko ekainaren aurreko dokumentazio guztia ia dena transkribatuta eta lehenengo irakurraldi batean zuzenduta dagoela. Horrek esan nahi du dokumentazio guztiaren 3/4 baino gehiago. Oraindik transkribatzeke dauden dokumentuak 1941eko bigarren erdia eta 1945a bitarteko datadunak dira, 500 bat dokumentu guztira.

2.- ARGITALPENAK

2.1.- Liburu-aurrezpena: “1512-“Euskal lurraldeak eta Nafar estatua”



Parte-hartzaileak: **Amaia Basterretxea**, Bilboko Euskal Museoko zuzendaria; **Xabier Orue-Etxebarria**, EHUKo Paleontologia katedraduna, eta **Angel Rekalde**, Nabarraldeko zuzendaria.

Joan den 2011n Sabino Arana Fundazioak Euskal Herriko Historialarien Bigarren Biltzarra antolatzen lagundu zuen. Biltzar hartako gai nagusiak izan ziren, bateko,

Arabak, Bizkaiak eta Gipuzkoak 1512ko konkistan bete zuten eginkizuna eta besteko, aldeztu aurretik konkistatuak izan ziren mendebaldeko euskal lurralde horiek, oro har, Nafarroako Erresumarekin izandako harremana. Hogeitahiru espezialista nabarmenek parte hartu zuten, honako hauek, besteak beste: Mikel Sorauren, Estibaliz González Dios, Xosé Estévez, Iñaki Sagredo, Amaia Basterretxea, Xabier Orue-Etxebarria, Jose Luis Orella Unzué, Idoia Arrieta, Juan Antonio Urbeltz eta Floren Aoz.

Liburuan, II. Biltzar horretan aurkeztutako txostenak eta jakinarazpenak jasotzen dira, eta aurrezpena GOAZ museumen izan zen.

2.2.- Liburu-aurrezpena: “EL CASO VASO. El desarrollo humano sostenible”

Euskal eredu bereziaren azterketa, “*El Caso Vasco. El Desarrollo Humano Sostenible*” liburuan jasotzen dena, eta kasu horren arrakastaren gakoak erreferentziazkoak izan daitezke, euren herritar guztien ongizatea eta zoriontasuna ekonomia-hazkundeaz harantzago bilatzen ari diren herrialde eta erregioentzat.



Juan Jose Ibarretxeren obra hau gogoetazko lan bat da eta Oveja Negra argitaletxeak editatuta dago; bertan, Euskadik jadetsitako balioak eta lorpen ekonomiko eta sozialak jasotzen ditu, bere lehendakari agintaldian lortutakoak bereziki, baita etorkizunean eredu horrek dituen aukerak ere.

Ibarretxe lehendakariaren aburuz, “euskal ereduaren iragan hurbila ulertzeak berebiziko garrantzia du ikuspuntu sozial, politiko eta ekonomikotik, zeren hala egiteak etorkizuna eraikitzen lagun baitiezaguke”.

Liburua Sabino Arana Fundazioaren GOAZ museumen aurkeztu zen, irailaren 27an.

2.3.- DEIA egunkarirako artikuluak. Euskal historia eta antropologiako askotariko gai zenbaiti buruz Deia egunkarirako kolaborazio gisa idatzitako artikuluak.

2012an zehar Sabino Aranak “Euskaldunen historiak” saileko kolaborazioak koordinatu ditu DEIArentzat. Artikulu horietan, alde edo moldez Euskadiren historia moldatu eta zizelkatu duten zenbait gai historiko eta antropologikoren gainean idazten da.

Ekimen horretan Sabino Arana Fundazioak eta Deia egunkariak lankide izan dituzte: **Román Berriozabal, Jean Haritschelhar, Peio J. Monteano, Asier Madarieta, Iñaki Irigoien, Guillermo Tabernilla, Julen Lezamiz, Juan Pardo San Gil, Adrián Celaya, Amaia Mujika Goñi, Jon Irazabal, Iñaki Anasagasti, Leopoldo Zugaza, Andoni Elezcano, Gregorio Arrien, Koldo San Sebastián, Marian Álvarez, Mikel Lertxundi, Aitor Miñambres, Eduardo J. Alonso, Josu Chueca, Jesús de Garitaonandia, Álvaro Baraibar, Andoni Sagarna, Txema Montero, Jean Claude Larronde, Marian Álvarez eta Miren Azkarate**, Sabino Arana Fundazioko teknikari eta historialariez gain.

3.- “HERMES” PENTSAMENDU ETA HISTORIA ALDIZKARIA

Joan den 2011ko azaroaren 17an eta 18an, Europar Demokraten Institutuak eta Sabino Arana Fundazioak “Europa eta garapen-erronkak: Milurtekorako Garapen Helburuez (MGH) harantzago” mintegia antolatu genuen elkarlanean. Jardunaldiotan gizarte

zibilaren ordezkari bat izan zen, bai eta Europar Demokratikoen Alderdiko zenbait kide ere, herrialde desberdinetatik etorritakoak eurak.

Mintegian hizpide izan ziren “printzipioak, balioak, giza duintasuna, aukeraberdintasuna eta justizia soziala”, baina baita mahairatu zen ere, beharrezkoa zela indartsu ekin eta aztertzea, MGHen bilakaeran azterketan oinarrituta, Europatik bultzatu beharreko garapen globalaren agenda zein izan beharko litzatekeen, “laguntza arrakastatsua eta eraginkorra izateko berraztertutako lukeen agenda bat, hau da, garapen-emaitza zehatzak ekar ditzala”.

Hermesen 40 zenbakiak, “Garapenerako lankidetzak: begirada kritiko bat” izenburupean, gai garrantzitsu horrezaz egindako analisien eta proposamenen funtsezkoa jaso du zenbait artikulutan.

Elkarrizketan, **Uxue Barkos** Geroa Baiko diputatua izan zen protagonista.



“XXI. mendeko hezkuntza: erronkak eta helburuak”, izenburu horrekin aurkeztu zen 41 zenbakia, zein 2012 honen hasiera aldera, Erramun Osak koordinatuta, Bilbon egin zen mintegiaren emaitza baita. Aipatu jardunaldian euskal hezkuntzaren esparruko zenbait elkarte eta erakundetako kide nabarmenek parte hartu zuten.

Zehazki, mintegi hartan egin zen iritzi-trukaketaren laburpen bat jasotzen eta islatzen du; iritziak ardatz nagusi biren inguruan ibili ziren: alde batetik, euskal hezkuntzak XXI. mendeko lehenengo laurdenerako dituen erronkak, eta bestetik, erronka horiei aurre egiteko helburuak. Horretara, gogoetagai hartu ziren euskara eta euskal irakaskuntza, elkarri estu-estu atxikita doazen kontu bi.

Adierazi behar da, bestalde, zenbaki honetako edukiak hezkuntza bat baino gehiagotan agertzen direla (euskara, gaztelania eta frantsesa), horrenbestez eleaniztunei eduki gehigarri bat eskainiz.

Eta alea osatzeko, elkarrizketa espezifiko bi: Xabier Garagorri **Jaques Delors** eta **Sobhi Tawili** egindako bana.

Eta azkenik, urrian, ETAK borroka armatua behin betiko uzten zuela iragarri izanaren urteurrenarekin bat, “365 egun bakean” zenbakia argitaratu zen. Hermes pentsamendu eta historia aldizkariaren zenbaki berri horretan (42. zk.) epaile,



magistratu, Zigor Zuzenbideko katedradun, akademiko, abokatu eta instituzioetako ordezkari zenbaitek gogoeta egiten dute ETaren adierazpenaren ondoren planteatzen zaigun agertoki berriari buruz; hain zuzen ere, gogoetok haiek ekainaren 22an “Zigor Zuzenbidea ETaren amaieran” izenburuko mintegian parte hartzean egindakoak dira.

Zehazki, honako hauek izan dira parte hartzen dutenak: **Joaquín Giménez** Auzitegi Goreneko Zigor Arloko epaile magistratua; **Iñigo Lamarca**, Arartekoa; **José Ricardo de Prada**, Entzutegi Nazionalako Zigor Arloko magistratua; **Antonio Cuerda**, Madrileko *Rey Juan Carlos* Unibertsitateko Zigor Zuzenbideko katedraduna; **Juan Calparsoro**, EAEko fiskal nagusia; **Xabier Etxebarria**, abokatu zigor-legeetan aditua eta Deustuko Unibertsitateko Zigor Zuzenbideko irakaslea; **Nekane San Miguel**, Bizkaiko Probintzi Entzutegiko magistratua, eta **José Ricardo Palacio**, abokatu zigor-legeetan aditua.

Azkenik, Hermes aldizkariaren azken zenbaki hori osatzeko, elkarriketa bat, **José Luis de la Cuesta** Kriminologiaren Euskal Institutuko zuzendari eta Zigor Zuzenbidearen Nazioarteko Elkarteko presidenteari egin zaiona, non esaten baitu, besteak beste, “terrorismoaren ondorioz sentsibiltate demokratikoa galdu dugula”.

4.- GOGOETA ETA ELKARRIZKETARAKO MINTZAGUNEA

MINTEGIAK:

4.1.- “Europar Batasunaren Nekazaritza Politika Erkidearen erreforma”

Sabino Arana Fundazioak eta Europar Parlamentuko Liberal eta Demokraten Taldeak (ALDE) mintegi bat antolatu zuten otsailaren 6an; bertan bildu genituen, euskal nekazaritza eta abeltzaintza sektoreaz gain, **Ricard Ramon i Sumoy** Europar Batzordeko Nekazaritza eta Landa Garapeneko Zuzendaritza Nagusiaren administratzailea, **Carlos Uriagereka** Bizkaiko Foru Aldundiko Baso Zerbitzuburua eta **Izaskun Bilbao** ALDE Taldeko eurodiputatua, bai halaber jarduera honi lotutako jarduera ekonomikoetan diharduten eragile eta operadoreak.



Jardunaldiaren helburua izan zen, aipatu sektorea Europako agintariekin kontaktuan ipintzea eta esparru hartako profesionalek Europaren erreforma-proposamenak eta beroriek egiteko arrazoiak bertatik bertara entzun ahal izatea. Gainera, bide batez, Europar Batasunaren erakundeetako arduradunei euskal nekazaritza eta abeltzaintzako

sektorearen ordezkariekin elkartzeko plataforma bat ere eman zitzaion

Jardunaldiak, lehenengo, jendaurreko zati bat izan zuen eta bertan Ricard Ramon i Sumoyk eta Carlos Uriagerekak euren planteamenduak azaldu zituzten; ondoren, Iñaki Nubla Euskadiko Nekazaritza Kooperatiben Federazioko idazkari teknikoak artezkari jardun zuen lan-tailer batean, non sektore guztietako berrogeitik gora ordezkari

(nekazariak, abeltzainak, basogileak, merkaturatzaileak, nekazaritza-elikagaien industriakoak, kooperatibistak, kontseilu erregulatzaileak, etab.) aukera eduki baitzuten Batasuneko arduradunarekin iritziak elkartrukatzeko.

Debatearen atalean parte hartu zutenei dagokienez, nabarmendu ditzagun, besteak beste: **Irene Pardo** (Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza diputatua), **Iñaki Nubla** (Euskadiko Nekazaritza Kooperatiben Federazioko idazkari teknikoa), **Jorge Garbisu** (Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza Saila), **Inazio Martínez de Arano** (Europa Hegoaldeko Basogileen Batasuneko presidente betearazlea), **Salvador Gorostola** (Aberekin zentroko zuzendaria), **Mikel Arteaga** (ENBAko lehendakaria), **Xabier Iraola** (ENBAko koordinatzailea Gipuzkoan), **Alberto Lekerika** (Bizkaiko Baratzezainen Elkarte), **Andrés Lekuona** (*Alavesa de Patatas*), **José Linaza** (Bastidako Ardogileen Elkarte), **Alfredo Montoya** (Euskadiko Kooperatiben Elkarteko presidentea), **Carlos Osés** (Ipar Kutzako zuzendari nagusia), **Maite Peñacobe** (Itsasmendikoi), **Josu Azpitarte** (Euskadiko Basogintza Elkarteen Konfederakundea), **José Antonio Merino** (Arabako Txakolina J.I.eko idazkari nagusia), **Ikerne Zuluaga** (Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza zuzendaria), **Sonia Barrondo eta Peli Manterota** (Gorbeialde), **José M^a Ustarroz** (Idiazabal Gaztaren Jatorri Izenaren Kontseilu Erregulatzaileko presidentea), **Martín Uriarte** (LORRAko zuzendari gerentea), **Juan M^a Totorika** (Urkiola eta Lea Artibaiko Landa Garapenerako Elkarteko gerentea), **Ibon Mandaluniz** (Urremendi Landa Garapen Elkarteko gerentea), etab.

4.2.- “Ipar Afrikako herrialde arabiarretako iraultzak: Islama, Gizartea eta Estatua”.

Joan den martxoaren 14an **Justo Lacunza** Erromako Arabiar eta Islamiar ikasketetarako Pontifize Institutuko (PISAI) erretore emerituak eta **Kheloudja**



Khalfoun aljeriar legelari ospetsuak “Ipar Afrikako herrialde arabiarretako iraultzak: Islama, Gizartea eta Estatua” mintegian parte hartu zuten, bertan zirela beste berrogeita hamar bat pertsona: politikariak, erakundeetako ordezkariak, unibertsitateko katedradun zein irakasleak, politologoak, soziologoak, analistak, erlijio-jendea, GKEetako kideak,

kooperanteak eta Euskal Herrian dagoen Ipar Afrikako arabiar komunitatearen beraren ordezkariak zabal bat. Ekitaldia Sabino Arana Fundazioak antolatu zuen.

Ipar Afrikako arabiar herrialdeetako iraultzak gaur egun lehenengo mailako gertakariak dira; eragina dute, arabiar herrialdeetan euren ez ezik, baita geopolitikan, nazioarteko harremanetan eta munduko gainerako gizarteetan ere. Horrexegatik, bada, errealitate berri horren gakoak zuzenean eta haien protagonista zuzenen ahotik jakin nahi izan ditugu.

Mintegian parte hartu dutenen artean, Justo Lacunza eta Kheloudja Khalfoun-ez gain, besteak beste, egon dira: **Carmen Uriarte**, Turkiako kontsula; **Zohra Bahat El Mehdi**,

“Medina” Emakume Musulmanen elkarteko presidentea; **Ahmed El Hanafy**, Euskal Herriko Komunitate Islamikoen Batasuneko (EHKIB) presidentea eta Alsalaam meskitako Emirra; **Teresa Maura**, Euskadiko Munduko Medikuek elkarteko presidentea; **Javier Salaberria**, EMU Fundazioaren (European Muslim Union) Euskadiko ordezkaria; **Hithem Abdulhaleem**, Deustuko Unibertsitateko Pentsamolde Islamikoko irakasle lankidea eta BIDEKO Psikoterapia Transkulturalerako Zentroaren zuzendaria; **Brahim Abdelfatah** Frente Polisariokoa; **Juan José Sánchez**, historialaria eta arabiar munduan aditua; **José Luis Villacorta**, Historia Modernoan doktorea eta Deustuko Unibertsitateko Historia eta Antropologia irakaslea; etab.

4.3.- “Rethink Euskadi: gure geure eredu bat etorkizuna irabazteko”



Sabino Arana Fundazioak joan den maiatzaren 15, 22 eta 23an “Rethink Euskadi: gure geure eredu bat etorkizuna irabazteko” izenburuko hitzaldi/mahai-inguru sorta bat (beroriek zehatzago azalduko dira hurrengo atalean) antolatu zuen, eta haren barruan mintegi bi:

eredu bere berea sortu beharraz hitz egin zen, bai halaber, Europan ezagutzaren industria trinko bat eraikitzeaz eta eredu horrekin koherentea izan behar duen irudi bat eraiki eta proiektatzeaz Europan bertan zein munduko gainerako lekuetan.

- Biharamunean, Euskadiko Autonomia Erkidegoak datozen urteetan aurre egin beharko dien erronkak aztertu ziren; besteak beste, industria arloan, zientzia eta teknologia arloetan, hezkuntzan, turismoan, etab., eta horrekin batera, aipatu erronka multzoa ageriratu eta nazioarteko ingurune batean hedaraziko duen herrialde-marka baten alde egin behar duen apustua ere aztertu zen.



4.4.- “Zigor Zuzenbidea ETaren amaieran”

Joan den ekainaren 22an zenbait epaile, fiskal, zigor-arloko aditu, politikari eta akademiko bildu ziren Sabino Arana Fundazioaren GOAZ museumen, “Zigor Zuzenbidea ETaren amaieran” mintegian aparte hartzeko; guztiek lan egingo dute pixkanaka “Salbuespenezko Zuzenbidea” desegituratzea lortzeko, ezen hori, haien iritziz, azken urteotan sortu da talde armatuaren jardueraren eraginpean, eta guztiak daude Justizia, ETaren jardun armatua bukatu ostean irekitako agertoki berrira egokiaraztearen alde.



Hala adierazi zuten lan-jardunaldian, bertan zirela, besteak beste: **Juan Luis Ibarra**, Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko mahaiburua; **Juan Calparsoro**, Auzitegi Nagusiko Fiskala; **Joaquín Giménez**, Auzitegi Goreneko magistratua; **José Ricardo de Prada**, Entzutegi Nazionaleko epailea; **Margarita**

Uria, Botere Judizialaren Kontseilu nagusiko mahaikidea; **Iñigo Iruin**, **Txema Montero**, eta **Javier Beramendi** abokatuak **Josu Erkoreka** eta **Emilio Olabarria** EAJko diputatuak, eta Amaiurkoa, **Mikel Urbina**; **Iñigo Lamarca**, Arartekoa. etab.

Mintegira bildutako epaile, fiskal, abokatu, politikari eta akademiko haiek salbuespeneko Zigor Zuzenbideaz, legeria antiterroristaz, biktimologiaz, barkamenaz eta espetxeen kontuaz debatitu zuten.

4.5.- “Ezagutzaren hirukia: krisitik ateratzeko tresna eta irtenbidea”

Berrogeita hamar bat zientzialari, europar politikari eta goi hezkuntzako adituk, denak ezagutzaren gizartearekin konprometituak, elkarraldi batean parte hartu zuten joan den ekainaren 6an. Jardunaldiak Sabino Arana Fundazioak eta Europar Demokraten Institutuak (IED) antolatuta egon zen.



Izenburu orokortzat “Ezagutzaren hirukia: krisitik ateratzeko tresna eta irtenbidea” hartuta, jardunaldien helburua zen, agerira ateratzea norainoko garrantzia duen hezkuntzak, ikerkuntzak eta berrikuntzak elkar harturik jarduteak, baldin eta nahi bada Europak azken hamarkadetan nabarmenki izan duen abangoardia ekonomiko eta politikoko lekua berreskuratzea

Horretarako, hiru adituk —bakoitzak bere arlokoa— hitzaldi bana eman zuten, ondoren debate aberasgarri bat irekitzeko, berrogeita hamar gonbidatuek ere bertan parte hartu zutelarik.

Alfonso Unceta EHUKo Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko dekanok “Hezkuntza-eredu berri bat: kudeaketan eta orientazioan oinarritua” gaiaz hitz egin zuen.

Beste alde batetik, **Marc Luyckx Ghisi**, Delors eta Santer-ekin batera, Europako Batzordearen Prospektiben Saileko kidea izan zen eta gaur egun Aurovilleko Nazioarteko Kontseilu Aholkulariko kide denak “Ikerkuntza: oinarritzko zientziari eta zientzia aplikatuari dagozkien zenbait alderdi” izenburua ipini zion bere hitzaldiari. Eta

Juan Tomás Hernani *European Spallation Source*ko (Suedia) Berrikuntza eta Industriako idazkari nagusiak bere hitzaldian “Berrikuntza eta ekintzailatza” hartu zuen mintzagaitzat.

4.6.- “V. Bilboko elkarrizketak. Politikaren eta Ekonomiaren arteko lotura, garaiotako erronkei dagokienez”

Bilboko elkarrizketak jardunaldien bosgarren aldia urriaren 1ean eta 2an egin da. Jardunaldi horiek elkartze- eta debate-gune izaten dira eta urtero politikako buru zenbait eta europar eta latinoamerikar akademiko batzuk biltzen ditu garaian garaiko gaiez hitz egiteko; aurtengo elkarrizketetan “Politikaren eta Ekonomiaren arteko lotura, garaiotako erronkei dagokienez” gaia hartu da debate-gaitzat, non intelektual horiek honako kontu hauek aztertu zituzten, besteak beste: munduko krisi ekonomikoaren ondorioak, eta aurre egin behar diegun arazoei demokrazia nola erantzuten ari zaien.



Sabino Arana Fundazioak eta Europar Demokraten Alderdiak (PDE-EDP) antolatutako “V. Bilboko elkarrizketak” jardunaldietan parte hartu zuten, urriaren 1eko saioan, **Iñigo Urkullu**k, une haietan Eusko Jaurlaritzako lehendakari gai zela; **Gutenberg Martínez** M. de Cervantes Unibertsitateko errektorea eta Txileko Diputatu Ganberako, Txileko Alderdi Kristau Demokratiko eta ODCAko mahaiburu ohiak; **François Pauli** PDE-EDPko idazkariordeak; **Óscar Álvarez** Costa Ricako *Universidad Nacionaleko* Nazioarteko Harremanen Eskolako irakasleak; **Gerardo Aranda**, Mexikoko Rafael Preciado Fundazioko zuzendari betearazleak; **Jon Azua**, E-NOVATINGLABen sortzaile eta presidenteak, y **Jorge Rodríguez Grossi** Txileko Ekonomia eta Energia ministro ohi eta Txileko Alberto Hurtado Unibertsitateko Ekonomia Fakultateko dekanok. Eta artezkari jardun zuen **Antonio Carámbula** Uruguaiako Turismo eta Kirol ministrordeak.

Asteartean, hilaren 2an, 9:00 eta 14:00 bitartean, “V. Bilboko elkarrizketak” topaketa hauen bigarren jardunaldian beste mahai-inguru bat egin zen, “*Politika eta Ekonomia. Lotura horri buruzko irakaspenak eta erabakiak*” izenburukoa, non hizlari izan baitziren: **Daniel Innerarity**, Filosofia Politiko eta Sozialeko katedraduna, “Ikerbasque”ko ikerlaria EHUn eta *Globernanc*-eko –Gobernantza Demokratikorako Institutua— zuzendaria; **Lourdes Flores**, Peruko presidentetzarako hautagai ohiak; **Jose Luis Larrea**, Ibermáticako presidentea, eta **Gutenberg Martínez**. **Joseba Barandiaran** ekonomialariak jardun zuen artezkari.

Goizeko bigarren mahai-inguruan, zeinen izenburua “*Hartu al dira beharrezko edota agindutako erabakiak Munduko nahiz Europako ekonomian?*” izan baitzen, honako hauek izan ziren mahaikoak: **Gonzalo Arenas**, Txileko Pedro de Valdivia Unibertsitateko errektorea; **Pedro Azpiazu**, Kongresuko diputatua; **Oscar Ensínck**, Argentinako ACEPko (Herri Ikasketen Herritar Elkarte) presidentea, eta **Silverio Zebral**, Amerikako Estatuaren Erakundeko (OEA) Estatuaren Modernizaziorako ekonomialari burua.

4.7.- “Finantza-sistema: erronkak eta aukerak”

Joan den azaroaren 15ean hogeita hamarretik gora aditu —ekonomia eta enpresa arloetakoak, finantza-erakundeen ordezkariak...— bildu ziren Iruñeko Tres Reyes hotelean, Sabino Arana Fundazioak antolatu elkarraldi batean; jardunaldiaren helburu nagusia izan zen, gure finantza-erakundeek aitzinean dituzten erronkei nahiz aukerei buruzko gogoeta bat sustatzea. Izan ere, haien jarduketa globaltasunak markatutako esparru baterantz orientatu beharko da, eta gainera, bizi ditugun garaiotan, ziurgabetasuna nagusi den testuinguru batean.



Xedea izan zen, finantza-sistemaren orainaz eta geroaz debatitzea eta gogoeta egitea. Izan ere, gure finantza-erakundeek hartuko duten jarrera erronka bat da, komenigarria delarik horretaz oinarri sendoak finkatzea. Ezen beharrezkoa da

halako gogoeta bat egitea ezen, balioetan oinarriturik egoteaz gain, iraunkortasuna eta erantzukizuna datxezkion jarrera bat bidera dezan.

Adituen gogoeten ardatz nagusiak, bertzeak bertze, honako puntu hauek izan dira: gure finantza-entitateak ingurune globalean lehiatzeko gai izanaren ote liratekeen; Herri garen aldetik zein ekarpen eginen lioketen gure garapenari; edo banku-batasun batek dituzkeen aukerak...

Elkarraldian honako hauek izan ziren hizlari: **Juan José Álvarez**, EHUko Nazioarteko Zuzenbide Pribatuko katedradun eta *Globernance*-eko –Gobernantza Demokratikorako Institutua– idazkaria.; **Sixto Jiménez**, ekonomialaria, Nafarroako Kutzako kontseilari ohia eta Tutti Pasta SAko presidentea, eta **Juan Manuel Sinde**, Euskadiko Kutzako zuzendariorde nagusi ohia. **Iñigo Zabalza** abokatuak jardun zuen artezkari.

Elkarraldian izan ziren enpresa, elkarte eta



erakundeei dagokienez, honako hauen ordezkariak egon ziren: Euskadiko Kutxa, Nafarroako Marketing Kluba, Sodena, Diario de Noticias, Berria, Zabaltzen, Kukuxumuxu, Salcedo elkarte kooperatiboa, Ayestarán oinetakoak, *Izcue Asociados*, Nafarroako Erdialdeko Enpresarien Elkarte, Cedena-Garalur, Nafarroako Kontuen Ganbera, ENA Baliabide Ekonomietarako Arloa, Yaben aseguruak – *Seguros Bilbao*, Acciona Solar, Nafarroako Industrien Elkarte (AIN), PSN, Bildu eta Geroa Baien ordezkari parlamentarioak, Carlo Tamburri Italiako kontsula, etab.

HITZALDIAK ETA MAHAINGURUAK:

4.8.- “Europar Batasunaren Nekazaritza Politika Erkidearen erreforma”

Mahai-inguru hau otsailaren 6an egindako mintegiaren aurretik egin zen. “Europar Batasunaren Nekazaritza Politika Erkidearen erreforma” izenburuko mahai-inguru horretan parte hartu zuten **Ricard Ramon i Sumoy** Europar Batzordeko Nekazaritza eta Landa Garapeneko Zuzendaritza Nagusiaren administratzaileak, **Carlos Uriagereka** Bizkaiko Foru Aldundiko Baso Zerbitzuburuak eta **Izaskun Bilbao** ALDE Taldeko eurodiputatuak.



Europar Batzordeko administratzaile Ricard Ramon i Sumoyk, Europar Batzordeak 2014-2020 epealdirako proposatu berri duen Nekazaritza Politika Erkidearen erreformaren edukiak aurkeztu zituen. Aipatu erreforma-egitasmoa 2011ko urrian aurkeztu zen, eta gaur egun negoziazioetan ari dira Bruselan, 2014a baino lehen akordio batera iristeko.

Batzordearen proposamen horren helburua —adierazi zuen Ricard Ramon i Sumoyk— “lurralde osoan (EB) nekazaritzaren lehiakortasuna, iraunkortasuna eta finkapena sendotzea da, europar herritarrei elikadura osasuntsua eta kalitatekoa bermatzeko, ingurumena zaintzeko eta landa-guneak garatzeko”.

Carlos Uriagereka Bizkaiko Foru Aldundiko Baso Zerbitzuburuak, bere aldetik, Euskadiko Autonomia Erkidegoko nekazaritza eta abeltzaintzaren sektorearen erradiografia bat egin zuen, eta europar nekazaritza-politika Euskadin aplikatzeko modua eta Euskadin egiten den nekazaritza europar-araudiei egokitzea ere izan zituen hizpide.

Ildo horretan, Uriagerekak nabarmendu zuen, “Europar Batzordearen landa-garapenerako politika ondo egokitzen dela gure autonomia-erkidegoan garatu izan diren landa-politikekin”, nahiz eta aldi berean uste duen, “negoizazioei adi egon behar dugula, ezen “ekoizpen-kontrapartida bako zuzeneko laguntzek gune batzuetan bakarrik fokalizatzen dute jarduera eta gainerako lekuetan nekazaritza desagertzea eragiten; baina gure iritziz, Europak erregio guztietan bizirik dagoen nekazaritza behar du”.

4.9.- “Ipar Afrikako herrialde arabiarretako iraultzak: Islama, Gizartea eta Estatua”.

Justo Lacunza Erromako Arabiar eta Islamiar ikasketetarako Pontifize Institutuko (PISAI) erretore emerituak Sabino Arana Fundazioak “Ipar Afrikako herrialde arabiarretako iraultzak: Islama, Gizartea eta Estatua” izenburuean antolatutako jardunaldi batzuetan parte hartu zuen joan den martxoko 13an eta 14an. Jardunaldion helburua izan zen, gaur egun Ipar Afrikako arabiar herrialde batzuetan gertatzen ari dena hobeto ulertzen lagun diezaguketen giltza batzuk identifikatzea.

Horrenbestez, bada, Justo Lacunzak hitzaldi bat eman zuen, jende guztiarentzat irekia, eta bertan adierazi zuen ezen, arabiar belaunaldi berrien irudiko, Mendebaldeak eta beraren balioek euren etorkizuneko ametsa irudikatzen dutela, akats guztiengatik ere. Izan ere, PISAI-ko erretore emerituaren arabera, “arabiar herrialdeetako belaunaldi berriek “Mendebaldea gero eta gutxiago ikusten dute ‘piztia beltza’, ‘deabrua’, ‘etsaia’ balitz legez. Estatu arabiarretako milioika herritar jasaten ari diren txirotasunaren, bazterkeriaren eta miseriaren errudunak orain ez dira europar kolonizatzaileak, tokian tokiko buruzagi politikoak baino”.

Horrexegatik, bada, iraultza horien helburua, “herria bozaturik eta isilarazirik eta esklabo bihurturik duten diktadoreak suntsitzea eta mapatik ezabatzea da”, adierazi zuen.

Biharamunean, martxoaren 14an, arabista, afrikanista eta Islamean adituak mintegi batean parte hartu zuen, bertan beste berrogeita bat pertsona zirela: politikariak, bake-erakundeetako ordezkariak, abokatuak unibertsitateko katedradunak, eta beste espezialista batzuk; ekitaldi horretan iraultza nazional horiek 2010eko ekainaz geroztik Ipar Afrikan eragindako aldaketak aztertu ziren. Elkarraldi horretan baita parte hartu zuen ere Kheloudja Khalfoun aljeriar abokatu eta legelariak, zein Islamaren zereginaren, arabiar herrialdeetako askatasunen eta Aljeriako Konstituzioaren analista bikaina baita.



4.10.- “Rethink Euskadi: gure geure eredu bat etorkizuna irabazteko”

Joan den maiatzaren 15ean, 22an eta 23an, Sabino Arana Fundazioaren GOAZ museumen, jardunaldi batzuk antolatu ziren zenbait gairi buruz hitz egiteko eta, helburu nagusitzat, nazioarte mailan Euskadi leku pribilegiatu batean kokatzen lagun diezaguketen proposamenen definizioan aurrera egitea hartuta.

“Rethink Euskadi: gure geure eredu bat etorkizuna irabazteko” izenburuean egindako jardunaldi horietan aztertu ziren gaiei dagokienez, besteak beste, aipa ditzakegu: identitatea turismoa dinamizatzeko eragile gisa; Europar turismoaren 2020 Egitamua; Euskadik nazioarteko agertoki berrian izan ditzakeen aukerak; edo Europa berrian ezagutzako industria indartsua eraiki beharra.

Horretarako, maila handiko hiru adituk parte hartu zuten, zehazki: **Costas Andropoulos** Europar Batasuneko Turismo arloburuak; **Anne Glover** Europar Batzordeko aholkulari

zientifiko nagusiak, eta **Juan Carlos Bellosok**, zein nazioarteko aditua baita estrategian, branding-ean eta nazioarteko sustapenean.

4.10.1.- Rethink Euskadi: gure geure eredu bat etorkizuna irabazteko. Europa-Euskadi turismoa

Jardunaldietako lehenengoa erabili zen etorkizun hurbilean turismoaren munduan gertatuko denaz kontzientziarazteko eta aldi berean informatzeko; horretarako, mahai-inguru bi antolatu ziren.

Lehenengoan hizpide hartu zen gaia izan zen: “Identitatea, turismoa dinamizatzeko eragile gisa: turismorako markak”, eta bertan parte hartu zuten, **Jaume Font** Kataluniako Generalitateko Turismo zuzendariorde ohi eta gaur egun Bartzelonako Unibertsitateko irakasleak; **Susana del Río** Zientzia Politikoetan doktore, Europar Batzordeko Adituen batzordeko kide eta “Upgrading Europe” egitasmoko zuzendariak; **M^a Angels Serra** Chias Marketing-eko, Hor dago! Plana 2009-2012 (Euskadirako Turismo Marketina) egikaritzeko kontratatutako enpresako, bazkide aholkulariak, eta **Idoia Postigok** (artezkari zereginetan), zein Bilbao Metròpoli 30en Kanpo Harremanetarako arduraduna baita.



Eta bigarren mahai-ingurua honako hauek osatuta egon zen: **Costas Andropoulos**; **David Mora**, TEA-CEGOSen Turismo Saileko gerentea; **Aurkene Alzua-Sorzabal**, CICTour GUNEko zuzendari nagusia; **Igor Filibi**, Nazioarteko Harremanetan doktorea eta Europar Integrazioan masterra; eta **Mikeldi Uribe-Etxebarria** (artezkari zereginetan), Sergofiko eta Bitravel-eko zuzendaria.

Lehenengo jardunaldi honen ondorioetako bat izan zen, Euskadi berrian bakearen eta kultur askotarikotasunaren batukaria arrakastarako “*mix*” bat dela. Identitatea turismoa dinamizatzeko eragileztat hartuta, elkarraldi horretako parte-hartzaileak bat etorri ziren adieraztean, hori “funtsezko elementu bat da, nazioarteko merkatuetan kokapen bat lortzeko”. Gainera, —erantsi zen—, “marka eta identitatea parekatzea positiboa da, hori kaudimenaren eta berrikuntzaren sinonimo baita”.

4.10.2.- Rethink Euskadi: gure geure eredu bat etorkizuna irabazteko. “Eskoizian bizitzen ari dena eta Europaren egitasmoa”

Hilaren 22an, Europar Batzordearen aholkulari zientifiko nagusi Ann Glover, bere aldetik, European ezagutzaren industria trinko bat eraiki beharraz eta European eta munduko gainerako lekuetan eredu horrekin bat etorri behar duen herrialde-irudi bat sortzeaz eta proiektatzeaz mintzatu zen.



“Etorkizuna European Zientziatik, Ingeniaritzatik eta Teknologiatik igarotzen da, eta gu, buruargiak izanez lehiatuko gara. Arlo horretan inbertitzen ez badugu, urte batzuk barru ez da ezer aterako eta, bien bitartean, beharrezko aurreikuspena egin dutenek gainditu egingo gaituzte. Oso akats larria da zientziari eta ikerkuntzari murrizketak egitea”, adierazi zuen Anne Glover-ek.

Eta, oro har, Europako gertalekuari dagokionez, azpimarratu zuen ezen, “teknologiaren esparruan nazioarte mailan dugun eragina oso handia bada ere, merkatu berriak, eskari berriak eta irtenbide berriak sortu behar direla”. Eta gehitu zuen, “XXI. mendeko unibertsitateek XXI. mendeko tituludunak sortu behar dituzte, zeren ez baitugu sortzen zientziaren arloan komunikatzeko gaitasuna duen jenderik, eta jakinarazten ez den ikerkuntza, egin ez balitz lez da”.

4.10.3.- Rethink Euskadi: gure geure eredu bat etorkizuna irabazteko. Herriaren Irudia Kudeatzea. Euskadirentzako ikuspegia eta gakoa”

Jardunaldiei amaiera emateko, Juan Carlos Beloso estrategian, branding-ean eta nazioarteko sustapenean adituak hitz egin zuen; besteak beste, esan zuen, Euskadin



aktibo handiak ditugula bai herrialde gisa, bai marka gisa. “Euskadirentzat ireki den bakezko agertoki berriaren aurrean, merkatuen nazioarteratzeagatik ere, nahiz eta erronka global berriekin lehia handiagoa izan, krisi sakonagatik ere..., hor guk aukera ederra dugu, eta berori baliatzen jakin behar dugu, hala barne esparruan, aurreranzko aldaketa nahi duen herritar-indarra kohesionatzeko, nola kanpo-esparruan, Euskadiren irudia mundura beste modu batera proiektatzeko” adierazi zuen amaitzeko.

4.11.- “Auto elektrikoa: garraioa eta energiaren iraultza”

Izenburu orokortzat “Auto elektrikoa: garraioa eta energiaren iraultza” ipinita, Sabino Arana Fundazioak elkarraldi bat antolatu zuen bere GOAZ museumen; jardunaldiaren helburu nagusia izan zen, “herritarrek jasangarritasunak eta energia-eraginkortasunak gure oraingo munduan duten garrantziaz sentsibilizatzea”.

Horretarako, arloko hiru adituk azaldu zituzten mugikortasun elektrikoaren esparruan gertatzen ari diren aurrerapenak: **Iván Martén**, BCGko (Boston Consulting Group) *Senior Partner & Managing Director* eta BCGren Energia Bulegoko mundurako zuzendaria; **Alberto Peña**, Tecnia Automociónen produktu elektronikoetako gerentea, eta **Enrique Monasterio**, IBIL ibilgailu elektrikoaren birkarga-kudeatzaileko zuzendari nagusia.

Iván Martén-en iritziz, “mugikortasun jasangarria lortu nahi delarik, auto elektrikoa da irtenbiderik onenetako bat, nahiz eta “erronka teknologiko asko eta oraindik konpondu bako kostuen erronka ez gutxi dauden”.



Orobat, BCGko zuzendariaren aburuz, “Euskadik auto elektrikoaren aldeko apustua egiteak haren inguruko industriaren garapena erraz dezake, berrikuntza teknologikoan eta enplegua sortzeko bidean aurrera

egiten laguntzeaz batera”

IBIL ibilgailu elektrikoen birkarga-kudeatzaileko zuzendari nagusi Enrique Monasteriok, bere aldetik, zera aurreratu zuen: ““Lehenengo DCzko birkarga bizkorreko hornigailuek ohiko 5 ordutik 20 minutura murriztu dezakete hornitze-denbora”

Eta azkenik, Tecnaliako Garraio Teknologiako zuzendari Alberto Peñak azpimarratu zuen, “ibilgailu elektrikoarentzako beste jardun-hobi batzuk agertu izanak eragile gehiago sartzea eta enplegu kualifikatua sortzea ahalbidetzen duela”

4.12.- " Euskal Herriko Historialarien III. Biltzarra”

Tropa erasotzaileen buruzagia Albako Dukea zela, orain dela 500 urte gauzatu Nafarroaren konkista gogoan, Nabarralde elkarteak, besteak beste, Sabino Arana Fundazioaren laguntzarekin, Euskal Herriko Historialarien III. Biltzarra antolatu zuen, aipatu gertaera tragikoaren ondorioak aztertzeko. Elkarraldia irailaren 7an eta 16an egin zen, historialariei, irakasleei, ikertzaileei, ikasleei eta, oro har, jende guztiari zuzenduta egon zelarik. Aurreko beste biltzar biez bestela, 2012ko aldia deszentralizazioaren premisari atxikita egin zen; hortaz, bada, batzarraldiak Arrasaten, Leitzan, Agoitzen eta Iruñean egin ziren.



Biltzarraren aurkezpena Nabarralderen egoitzan egin zen, maiatzaren 4an, eta ekitaldian egon ziren, besteak beste, Iruñe Zuluaga, Sabino Arana

Fundaziokoa; Angel Rekalde, Nabarralderen koordinatzailea; Joseba Asiron, historialaria eta biltzarraren zuzendaria; Juan Mari Barriola, Leitzako zinegotzia; Unai Lako, Agoitzeko alkatea, eta Inazio Azkarraga, Arrasateko alkatea.

4.13.- “Zer dago krisian: Politika, ekonomia, edo biak, ala definizio eta buruzagitza arazoa da?”

Urriaren 1ean eta 2an egin ziren “V. Bilboko elkarriketak. Politikaren eta Ekonomiaren arteko lotura, garaiotako erronkei dagokienez” jardunaldien amaiera-ekitaldia, mahai-inguru bat izan zen: “Zer dago krisian: Politika, ekonomia, edo biak, ala definizio eta buruzagitza arazoa da?” izenburupean eta jendearentzat irekia, Hizlariak izan ziren:

Gerardo Aranda Mexikoko Rafael Preciado Fundazioko zuzendari betearazlea; **Gutenberg Martínez** M. de Cervantes Unibertsitateko errektorea, Txileko Diputatu Ganberako, Txileko Alderdi Kristau Demokratako eta ODCAko mahaiburu ohia, eta **Silverio Zebral**, Amerikako Estatuaren Erakundeko (OEA) Estatuaren Modernizaziorako ekonomialari burua. Azken ekitaldi horretan, besteak beste, munduko krisi ekonomikoaren ondorioak eta aurre egin behar diegun arazoei demokrazia nola erantzuten ari zaien izan zituzten aztergai.



4.14.- Debatea: 2012ko AEBetako lehendakaritza-hauteskundeak

Obama eta Romneyren arteko bigarren aurrez aurrekoaren bezperan, Sabino Arana Fundazioak Euskadira ekarri nahi izan zituen 2012ko AEBetako lehendakaritza-hauteskundeak, eta urriaren 15a izan zen horretarako eguna.



Izan ere, oso interesgarriak deritzegu Estatu Batuetako hauteskundeei, zeren Euskadi, sustrai barna eta sakoneko nazio txiki eta oparo hau, munduari adi baitago, XXI. mende honetan *izateak* eta *egoteak* aldi berean exijitzen

digutelako eskala lokalean nahiz globalean ere *izatea* eta *egotea*. Eta iparramerikar hauteskundeak gertakari globala dira, AEBen mugez haraindi ere hedatzen den gertakari bat, hain zuzen.

Alderdi Demokrataren izenean hitz egin zuen, **Estuardo Rodríguez**ek, analista politikoa berori AEBetako Estatu Sailean, eta Alderdi Errepublikanoaren izenean,

Danny Vargasek, Hispano Errepublikanoen Batzar Nazionalako mahaiburuak. Debatea Ana Aizpiri kazetariak arteztu zuen.

Debatearen zatirik handiena ekonomiak, langabeziak eta osasun-erreformak bete zuten.

5.- GAZTERIA

5.1.- “Balía itzazu, zeu baliogabetu barik. Internet eta gizarte-sareak”

Joan den azaroaren 20an, Bilboko Euskalduna jauregian, “Balía itzazu, zeu baliogabetu barik. Internet + gizarte-sareak” elkarraldien III. aldia egin zen; mila bat inguru ikaslek parte hartu zuten bertan, DBHkoak, Batxilergokoak eta LHkoak, zeintzuk honako



ikastetxe
hauetatik etorri
baitziren:
Begoñazpi
(Bilbo);
Somorrostro
Irakasgunea, San
Félix Ikastetxea
(Ortuella),
Bizkaia
Ikastetxea
(Zamudio),
Serantes
(Santurtzi), Ave
Maria (Bilbo),
Mesedetako
Andra Mari

ikastetxea (Leioa), Artxandape (Bilbo), Kantauro Institutua (Santurtzi), *María Inmaculada* (Bilbo) eta Zalla Institutua.

Sabino Arana Fundazioak Euskaltekin batera antolatutako jardunaldi horietan gazte ikasleok aukera izan zuten arlo horretako hiru aditurekin iritziaik elkartrukatzeko eta zalantzak argitzeko; zehazki, aditu horiek izan ziren: **Alex Gibelalde**, Google Spain-eko Produktuaren Marketin Saileko arduraduna; **Maialen Garmendia**, Soziologiako doktorea, EHUKo Soziologia Saileko irakasle titularra eta *EU Kids Online Spain* lantaldeko zuzendaria —egitasmo horretan 18 herrialdeko zenbait lantalde ari dira parte hartzen—, eta **Iker Merodio** Kazetaritzako doktorea eta identitate digitalerako aholkularia, zeinek, gainera, artezkari ere jardun zuen.

Xedea izan zen, gazteei jakin eragitea "internet egundoko tresna dela, baina baita arrisku batzuk ere badituela", hala nola *ciberbullyng*, *sexting* nahiz ezezagunekiko kontaktuak, azaldu zuen Alex Gibelalde, Google Spain-eko Produktuaren Marketin Saileko arduradunak. "Zeren —Iker Merodio identitate digitalerako aholkulariak adierazi bezala— arriskuak jakinda bakarrik baliatu ahal baititugu aukerak".

Maialen Garmendia EHUKo Soziologia Saileko irakasle titular eta *EU Kids Online Spain* lantaldeko zuzendariak aitortu zuen ezen, umeak eta nerabeak "ez dira Interneteko eta gizarte-sareetako arriskuen jakitun"; baina, ekin egin zuen "arriskua eta

kaltea kontzeptuak bereizten, zeren arrisku orori baitatxekio kaltea jasateko arrisku-aukeraren bat. Garmendiaren iritziz, gizarteak larregizko dimentsioa eman die Internetek txikientzat ekar ditzakeen arriskuei, “gauza ezezagunari zaion beldurragatik eta, hedabide bati dagokionez, orain lehenengo bider gertatzen delako umeak gurasoei aurrea hartuta ibiltzea”.

Alex Gibelalde adierazi zuen, Googlek “familia-segurtasunerako zentroa abiarazi duela, Interneten munduan galdu samar dabilzan guraso horiei guztiei laguntzearren”.

Gurasoek egin behar dutena — Gibelalderen aburuz—

"nahikoa erraza da: Internetera eta neska-

mutilengana hurbildu, haiek

zer egiten duten ikusi, edukien

inguruan naturaltasunez

komunikatu eta gazteak gidatu

euren hezkuntzan eta mugetan”.

"Gizarte-sareetako norberaren ezaugarriez denaz bezainbatean, batzuetan ikusten dugu, haiek, kalean daudela inoiz konpartituko ez luketen informazioa konpartitzen dutela. Xedea horren jakitun izan daitezen besterik ez da, ezen mugatzeak edo debekatzeak une honetan ez du ezertarako balio. Aurrean dugun teknologia hau gazteentzat oso gertuko kontua da; hain ondo kontrolatzen dute ezen, mugak erraz gainditu ahal dituzten; horrexegatik da garrantzitsuagoa heziketa debekua baino", esanez amaitu zuen.



Arratsaldean, 19:30ean, hiru adituok beste elkarraldi bat izan zuten, baina ordukoan, Sabino Arana Fundazioaren egoitzan eta protagonistak helduak zirela, hau da, gurasoak eta hezitzaileak.

5.2.- GAZTEPOLIS Udako Unibertsitatea



Joan den martxoaren 27an, 28an eta 29an Gaztepolis gazte-elkartearen Udaberriko Unibertsitatea egin zen Sabino Arana Fundazioaren GOAZ museum-en, “Herriarren parte hartzearen gaineko egiak eta gezurrak” izenburupean, Bizkaiko Foru Aldundiak babestuta eta honako erakunde hauek lagunduta: Sabino Arana Fundazioa bera,

DEIA, Onda Vasca, Euskadiko Gazte Kontseilua (EGK-CJE), Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV-EHU) eta Deustuko Unibertsitatea. Aipatu jardunaldietan herritarren parte-hartzezko mugimenduetan esperientzia duten zenbait erakunde eta instituziotako ordezkariak eta zenbait adituk parte hartu zuten.

5.3.- Tailer didaktikoak

Aurtengo, 2012ko, martxo-apiriletan, “Nunca Más. Imágenenes de guerra 1936-1939” erakusketa Galdakaon eta irail-azaroetan Derion egon delarik, haren barruan tailer bana antolatu da 12 eta 18 urte bitarteko ikasleentzat. Jardunaldiok Aranzadi Zientzia Elkarteko adituen eman dituzte.

6.- EUSKARA

6.1.- “XXI. mendeko hezkuntza: erronkak eta helburuak”

Sabino Arana Fundazioak antolaturiko elkarraldi batean hogeit hamar ordezkari bildu ziren, instituzioetako, unibertsitate-esparruko eta ikastoleetako eta irakaskuntzarekin zerikusia

duten zenbait elkartetakoak, XXI. mendeko hezkuntzak aurrean dituen erronkak eta xedeak edota helmugak aztertzeko.



“XXI. mendeko hezkuntza: erronkak eta helburuak” zuela izenburu, ekimenean, besteak beste, honako hauek parte hartu zuten: **Arantza Aurrekoetxea**, eusko legebiltzarkidea; **Amaia**

Espinosa, EAJ-PNVren Hezkuntza Batzordeko kidea; **Jorge Giménez Bech**, Euskal Editoreen Elkarteko presidentea; **Iñaki Etxezarreta**, Elkar-Ikastolak Zerbitzuak sozietateko zuzendaria; **Erramun Osa**, mintegiaren koordinatzailea; **Miren Abasolo**, Elizbarrutiko Ikastetxeak elkarteko zuzendaria; **Jon Altuna**, Mondragon Unibertsitateko erretoreordea; **Abel Ariznabarreta**, Euskal Herriko Ikastolen Hezkuntza zuzendaria; **Ana Eizagirre**, EHIGERen eta BIGERen aholkularia; **Julen Elgeta**, HETELeko presidentea; **Josu Etxaburu**, BIHE Bigarren Hezkuntzako Ikastetxe Publikoetako Zuzendarien Elkartekoa; **Imanol Igeregi**, Euskal Herriko Ikastolen Elkarteko zuzendaria; **Lurdes Imaz**, EHIGE gurasoen elkarteko koordinatzailea; **Josu Legarreta**, EAJ-PNVren Hezkuntza Batzordeko kidea; **Pello Mariñelarena**, NIEko (Nafarroako Ikastolen Elkartea) zuzendaria; **Roberto San Salvador**,



Deustuko Unibertsitateko erretoreordea; eta **Usoa Urbietta**, EHIGeko presidentea.

XXI. mendeko hezkuntzak aurrean dituen erronkei dagokienez, mintegiko parte-hartzaileek erabateko adostasuna erakutsi zuten, adierazi zutelarik gure gazteen hezkuntzak giza garapen orekatu bati berez datxekion balioak eta ezagutzak bermatu behar dituela. Bestalde, parte-hartzaileek baita adierazi zuten ere euskal hezkuntza-sistemak oinarritzko kultura zientifiko-teknikoaren euskarri eta transmititzaile izan behar duela eta gure gazteentzat nahi den hezkuntza horrek euskal kultura plural eta global berria moldatuko duen funtsezko tresna izan behar duela, jatorriaren sustraiak galdu gabe, alegia. Azkenik, mintegian adierazi zen, halaber, aipatu erronkak adostasun politiko eta sozial dinamiko eta ahalik eta zabalenaren bitartez irabazi beharko direla,

7.- ABERTZALETASUNAREN AGIRITEGI HISTORIKOA

Laburpena zenbakitan. 2012ko BERRITASUNAK (2011n)

- 1.934 erregistro berri, Biblioteka-lanenak (1.647)
- 379 erregistro, artxibo-dokumentaziokoak (270)
- 352 erregistro, ikus-entzunezkotan (42)
- 284 kontsulta jaso (262)
- 134 aldizkari-izenburu, (Hemeroteka), 5.000tik gora ale guztira (96 eta 3.000)
- 68 ikertzaile aretoan (44)
- 67 dohaintza agiritegiari, horietatik 33 dohaintza-egile berriak izan dira (44 eta 22)

Zenbakiez harantzago, 2012ko gauza berrietako bat izan da, joan den martxoan Euskal Herriko Unibertsitateko Historia ikasleekiko lankidetzak hasi izana. Harreman erabat akademikoa da eta inolaz ere ez, lan-izaerakoa. Lotura hori da halako hitzarmen bat non, Fundazioak ikasle bat hartzen duen praktketan hil batzuetarako nahi ikasturte baterako.

Guretzat profesional bat trebatzeko aukera da eta ikaslearentzat, lehendabiziko lan-bizipen batean parte hartzekoa, hartara mundu profesionaleko bideari ekinez.

7.1.- AGIRITEGIAN EGINDAKO LANAK

A) ARTXIBOKO DOKUMENTAZIOA.

2012an, jarduera nagusiaz batera, hau da, urtero Agiritegian, gehien bat dohaintza-partikularrez, sartzen diren dokumentazio-funts berriak erregistratu, instalatu eta deskribatzeaz batera, gordailuaren berrikuste orokor bat egiten hasi gara.

Inbentarioen eta datu-baseen bitartez, instalazio-unitateak eta haien edukiak egiaztatzen ari gara. Aldi berean, dauden deskripzioetan sakontzen da, karpetak birbanatzen, dokumentu errepikatuak edo balio bako kopiak garbituz, eta kutxetan lekua irabazten da, gero agiri berriekin betetzeko. Hori guztia, al bait gehien aprobetxatzeko gordailuan ditugun metro linealak.

Hizpide dugun joandako urte honetan partikularren dohaintzetatik etorritako dokumentazio berriak, denak instalatu, erregistratu eta deskribatutakoan, **198** karpeta hartzen ditu.

Karpeten birkokapen fisikoak eta gordailuan lehendik zegoen dokumentazioaren datu-baseko deskripzioak beste **181** karpetatan izan dute eragina.

Ikus-entzunezko materialen datu-basean 2012an 352 dokumentu erregistratu dira.

B) BIBLIOTEKA FUNTSAK

Abertzaletasunaren Agiritegiaren Liburutegian 2012/12/31 bitartean zenbatutako monografiak **40.473** izan dira guztira. 2013an 1.934 obra berri erregistratu dira. Kopuru horretatik, **1.627** liburu Bilbo geratu dira gordailaturik; beste **307** ale Artea Arratiako Urruneko Liburutegira eroan dira (Bilbon zeuden beste 845 izenbururekin batera, iritzi izan baitzaie urruneko liburutegian egon daitezkeela).

Urte honetan, eta 2011n hasitako zereginari jarraituz, Liburutegiko liburu guzti-guztiak berrinstalatzea amaitu da, kontuan izanda uneoro liburu beraren ale kopurua, argitalpena, edukia, artapen-egoera eta liburuen neurriak; irizpide fisikoen eta intelektualen konbinazio horrek apalategietako eta berorien arteko lekua ahalik eta gehien aprobetxatzea ahalbidetu du.

Joan den urtetik egiten ari garen bezala, Bilboko gordailuan obra bakoitzaren ale bat bakarrik gordetzen da, beti ere baldin eta haren gaia eta edukia, gure liburutegi espezializatuak ezarritako irizpideen arabera, han egotekoak badira. Beste liburu guztiak edo Arteako urruneko liburutegira eramaten dira (artapenagatik duten balioa), edo beste leku batzuetara birbideratzen dira.

Beraz, 2012an zehar bizkar-zigiluak ipintzen segitu da eta Arteara eramaten ale errepikatuak eta gure espezializazioko irizpideekin loturarik ez dutenak. Lekuz aldatu dira **1.152** liburu, zeintzuk Arteako funtsa osatzera igaro diren. Han bildutako aleak guztira **10.616** dira dagoeneko.

C) "Uzturre" HEMEROTEKA

Urtean zehar jasotako aldizkako agerkarien aleak erregistratzen eta katalogatzen jarraitu da. 2012an lehendik ez zeuden beste **134** izenburu sartu dira Hemerotekan. "Uzturre" hemerotekaren gordailuak 500 metro linealeko edukiera du, eta orain arte **6.579** izenburu desberdin ditu, guztien artean **165.000**tik gora ale direlarik.

"Vaciado" datu-basean (hainbat agerkaritan -*Euzkadi*, *Alderdi*, *Hermes*, *Deia*, etab.— ateratako artikulu informazio historikodunak) dagoeneko **4.963** erregistro daude.

C) IKASLEAK PRAKTIKAK EGITEN

Joan den martxoan EHU-UPVrekiko lankidetza hasi zen; horren bidez, Historiako ikasleak hartzen dira, Agiritegian praktikak egiteko.

Praktiketako zeregina izaten da, *Euzkadi* egunkariaren orrietako informazioa jasotzea, euskal abertzaletasunaren egitura politikoari eta sozialari buruz argitaraturiko

erreferentzia guztiena, eta gero hori datu-base informatizatu batera iraultzea; ikasturtetik ikasturtera aldatu egiten dira lan egiten duten ikasak. 2012an **2.566** albiste erregistratu dira, aipatu egunkaria 1913ko otsailean sortu zenetik eta 1915eko apirilaren azken aldera artekoak.

7.2.- KONTSULTAK - AHOLKULARITZA HISTORIKO-DOKUMENTALA – LANKIDETZAK – JARDUNALDIETAN PARTE HARTZEA- EDITORIALA

- Kontsultak:

. 2012an Euskal Abertzaletasunaren Agiritegian 284 informazio-eskari jaso dira, gehienetan e-posta bidez edo gure web-orrian ostatatutako formularioen bitartez; gutxiago izan dira telefonozkoak, eta kontsulta bat bakarrik jaso da posta arruntez. 2011z geroztik gure instalazioetan aurrez aurre zuzenean jasotzen ditugun kontsultak, gure lehengo kokalekuan, Artean, geundeneko kopuruaren aldean, 3 edo 4 bider gehiago dira. 1992ko urritik hona guztira jasotako kontsultak 4.194 izan dira.

- Aholkularitza historikoa:

Deia: Euskal Abertzaletasunaren Agiritegiak koordinatzen ditu, Deia egunkariak larunbatero plazaratzen duen “*Historias de los vascos*” sailarentzako kolaborazioak. Lankidetzak horretan euskal historia eta antropologiako gai asko eta desberdin jorratzen dira historialari, kazetari, abokatu eta beste parte-hartze nabarmenen eskutik.

Hermes: Orobat erreportaje historikoak egiten laguntzen du bere historialarien bitartez, Hermes pentsamendu eta historia aldizkarian argitaratuak izateko.

- Lankidetzak:

. Labayru Ikastegiarekin, Euskal Kultur Pizkundeari buruzko bideo-lan bat egiteko

- Jardunaldietan parte hartzea

- .- Telebista-saioan –Tele7- gaurkotasun-gaiak: “*aquel 23 F de 1981*”, 2012/02/23
- .- Bizkaia Irratia, Durangori buruzko elkarrizketa, 2012/04/12.
- .- Onda Vasca, Gernikari buruzko elkarrizketa; 2012/04/12.
- .- Gernikako bonbardaketari buruzko mahainguruan parte hartu, apirilaren 20an
- .- Telebista-saioan –Tele7- gaurkotasun-gaiak: “*II República y bombardeo de Gernika*”
- .- Lemoa: “Zerutik sua dator” aurkeztu 2012/06/8.
- .- Galeusca biltzarrean parte hartu (2012ko uztaila).
- . Euskal Bibliografiaren II. Biltzarrean (Zarautz) parte hartu, (Uzturre” hemeroteka). 2012/10/12.
- .- Mahainguruan parte hartu: Eliza, gerra, etab., abenduaren 7an.
- .- Durangon liburu-aurkezpena: Xabier Irujorena Gernikako bonbardaketaz. 2012/12/09.
- .- Liburu-aurkezpena: Xabier Irujorena, erbesteko Eusko Jaurlaritzari buruzkoa. Bizkaiko Foru Aldundian, 2012/12/10.
- .- Lankidetzak Onda Vascarekin, Urkullu lehendakariaren inbestidura-ekitaldian Gernikan 2012/12/15.

- Kontrol editoriala:

Gregorio Arrienen “*Niños vascos evacuados a Gran Bretaña (1937-1940)*”.

7.3.- PARTIKULARREN DOHAINTZAK

2012/12/31 bitartean artxibo-dokumentazioen dohaintza-emaileak **1.350** izan dira. Urte horretan **67** pertsonak lagundu diote Abertzaletasunaren Agiritegiari, dohaintzak eginez. Azken kopuru horretatik **33**, dohaintza-emaile berriak izan ziren.

7.4.- IKERTZAILEAK

2012an gure agiri-funtsak **68** ikertzailek kontsultatu dituzte aretoan (iaz baino % 50 gehiago).

8.- EUSKAL ABERTZALETASUNAREN MUSEOA

8.1.- URTEKO BALANTZEA

Joan den ekitaldian, 2012an, GOAZ MUSEUM - Sabino Arana Fundazioaren Euskal Abertzaletasunaren Museoak bere jardunaren zatirik handiena bere lehengo Artea Arratiako egoitzatik Bilboko instalazio berrietara lekualdatutako materialak berrantolatzen eta birsailkatzen eman zuen, bai halaber, Artean gordailuan geratu den materiala antolatzen.

Orobat, funtsen zati bat eta dohaintzen ondorioz erantsi diren materialak antolatzeko lanetan jarraitu da.

Bestalde, honako funts hauen inbentarioa egin da:

- Ehungintza-funtsak: Artea Arratiatik lekualdatutako materiala dagoeneko berrinstalatu da Bilboko gordailuetan, baita orain atzenengo eskuratutakoak ere.
- Argazki-funtsa: 1.930etik gora irudiren erregistroa eta katalogazioa egin da, baita bakoitzari “Sabino Arana Fundazioa” zigilua irarri ere:
 - Dohaintza partikularretatik etorri diren funtseko irudiak erregistratu, katalogatu eta digitalizatu, bai halaber zigilua irarri.
 - Erregistraturiko irudien deskripzio fisikoa eta kontrastezko tratamendua.
 - Identifikatzaileen inbentarioa, artapen-egoera, kopien zenbakiak, etab.
 - Irudiak indexatu, bakoitzari dagokion testu-fitxan.
 - Argazki-albumetan instalatu dira, tamainaren, artapen-egoeraren eta abarren araberrako euskarri egokietan, ph neutroko tamaina

desberdinetako gutun-azaletan ipinita, dagokion irudiari egokitua horietako bakoitza.

2013an zeregin hori EHUko Arte Ederren Fakultateko edota, ikus-entzunezkoenetako ikasle praktiketakoek egingo dute, eta gainera eurak arduratuko dira kartelen funtsa antolatzeaz, argazkiak egiteaz eta bakoitzaren deskripzioa egiteaz ere.

- Eranskailuen bilduma: jaso diren berriak katalogatzen jarraitu da.
- Horma-irudien bilduma: Eranskailuen bildumarekin egin bezala, material jaso berrien inbentarioa egiten jarraitu da, idazpen berriak eginez, eta argazki digitalaren bitartez erregistratu dira.
- Diskografia: 360 pieza baino gehiago erregistratu dira eta artapen hobeak egitea ahalbidetzen duten euskarrietan instalatu.
- Txartelen bilduma: 300 idazpen baino gehiago deskribatu eta digitalizatu ditugu.
- Bestalde, dekorazio-arte, ehungintza, armategi eta beste arlo batzuetako 1.370 material-idazpenetik gora erregistratu eta instalatu ditugu.

Lehendik deskribatutako eta inbentarioa egindako funtsei dagokienez, esan behar da ze, joan den 2012ko ekitaldian zehar GOAZ MUSEUM — Euskal Abertzaletasunaren Museoak ia 316 kontsultari erantzun diela.

Gaur egun, 2012an jasotako dohaintza garrantzitsuen inbentarioa egiten ari gara, bai eta dagozkien euskarrietan instalatzen. Ildo horretan, bereziki aipatzekoak dira funtsetarako berreskuratu diren materialak: argazkigintza, ehungintza, dekorazio-arteak, arte grafikoak, pinakoteka etab.

Aldi baterako erakusketei dagokienez, gure parte hartzea izan da, gai desberdinetako zenbait erakusketarako ehundik gora pieza lagatzea.

Hala eta guztiz ere, 2012ko eskaintza didaktikoa “*Bilbao: atzo eta gaur*” tailerra abian ipintzearekin gauzatu da; joan den martxoan ipini zen abian, Haur Hezkuntzako Bigarren Zikloko 5 eta 6 urteko eskola-umeentzat. Kasu honetan neska-mutilek Bilboren antzinako irudiak gaur eguneko beste batzuekin erkatzen joan behar dute. Jarduera horrek umeen oharmen-gaitasuna trebatzeko balioko du.

8.2.- KONTSULTAK, LANKIDETZAK ETA MAILEGUAK

GOAZ MUSEUM – Euskal Abertzaletasunaren Museoak 2012 osoan 360 kontsulta baino gehiago jaso ditu; horrezaz gain, 800 irudi ere hornitu dizkie bai partikularrei, bai ikertzaileei, nahiz hedabide eta erakunde zenbaiti.

Orobat, ikertzaileen aretoan hamabi bat azterlari zerbitzatu ditugu, han argazki-funtsak zein dekorazio-arteak kontsultatu dituztelarik.

50etik gora gauzaki edo material laga edo mailegatu dira honako erakusketa hauetarako:

- “*Emakumeak, hitza eta bizitza*”, Bizkaiko Foru Aldundiak antolatua.
- “*Alfredo Espinosa (1903-1937) un republicano al servicio de Euzkadi*”, Eusko Jaurlaritzak antolatua.
- “*Indalecio Prieto en la política vasca 1883-1962*”, Eusko Jaurlaritzak antolatua.

8.3.- TAILER DIDAKTIKOAK ETA JARDUERAK

- **martxoaren 30ean:**

Joan den martxoaren 30ean tailer berri bat ipini genuen abian, “*Bilbao: atzo eta gaur*” izenburukoa, eta Haur Hezkuntzako Bigarren Zikloko 5 eta 6 urteko eskola-umeei zuzenduta. Kasu honetan neska-mutilek Bilboren antzinako irudiak gaur eguneko beste batzuekin erkatzen joan behar dute. Jarduera horrek umeen oharmen-gaitasuna trebatzeko balio izan zuen.

8.4.- ALDI BATERAKO ERAKUSKETAK

- **Erakusketa: “HERMES 10”**

2012ko urtarrilean “Hermes 10” oroitzapeneko erakusketa itxi zen. Hermes pentsamendu eta historia aldizkaria Sabino Arana Fundazioak argitaratzen du; hain zuen ere 2001ean argitaratu zen Hermes aldizkariaren 0 zenbakia: “*Nacionalismo y Democracia* (Abertzaletasuna eta Demokrazia”. “Hermes 10” oroitzapeneko erakusketaren helburua efemeride hori gogoratzen saiatu zen, grafikoki irudikatuz eta proiektatuz agerkariaren gogo-asmoak, ibilbidea eta etorkizunarekiko konpromisoa.

- **“Nunca más. Imágenes de guerra (1936-1939)”**

Martxoaren 26tik apirilaren 27ra, Galdakaon, Torrezabal Kultur Etxean.

- **“Zerutik sua dator”**

Bizkaiko Foru Aldundiak abian ipinitako “Gernika-Bizkaia 1937-2012, 75 urte gogoan” egitasmoaren barruan, Sabino Arana Fundazioaren GOAZ museumek “Zerutik sua dator” dokumentalaren emanaldia eskainiko zuelarik, horri atxikita erakusketa bat ere antolatu zuen, zenbait plano eta airezko argazki ezezagun zenbaitekin eratua; irudiok hegazkineria alemanak 1936an egindakoak dira, helburuak identifikatzea xede, ondoren beroriek bonbardatzeko, eta José M^a Arriola bilbotar notarioak laga zituen abagune horrexetarako. Erakusketa osatzeko, George Steer-en “*The Tree of Guernica*” liburuan argitaratutako jatorrizko argazki bi ere bazeuden.

“Zerutik sua dator dokumentalean 1936-39 gerran Bizkaiko gutxienez 37 udalerrik jasandako bonbardaketen gaineko lekukotza jasotzen da.

- **“Sabino Arana”**

2012ko uztailaren 25etik 2013ko abenduaren 31ra arte, Bilbon, Sabin Etxean.

- **“Nunca más. Imágenes de guerra (1936-1939)”**

Irailaren 7tik azaroaren 29ra, Derion, Kultur Birikan..

8.4.- PARTIKULARREN DOHAINTZAK, SABINO ARANA FUNDAZIOAREN GOAZ MUSEUM-Euskal Abertzaletasunaren Museoari egindakoak.

Berrogeitik gora norbanako eta erakundek 2012an zehar egindako dohaintzen emaitza izan da, GOAZ MUSEUM – Euskal Abertzaletasunaren Museoan jasotako 250 pieza baino gehiago eta argitaratu gabeko ia 700 irudi.

9.- SABINO ARANA SARIEN KULTUR JAIALDIA



Sabino Arana Fundazioak bere sarien XXIII. aldiko banatze-ekitaldia ospatu zuen joan den urtarrilaren 29an. Fundazioak urtero ematen dituen sarien kultur jaialdia itxaropen-giroan ospatu zen, ETak indarkeria erabiltzeari uko egin ondoren sortutako agertoki berriagatik, baina baita herrialdearen garapenarekiko konpromiso-giroan ere, krisi ekonomikoa euskal familia asko zigortzen ari den garai hauetan, hain zuzen.

Sei izan dira oraingoan goretsitako pertsonak eta erakundeak. Zehazki, Aieteko Nazioarteko Bake Konferentzia, Bilboko Merkataritza Ganbera, Deustuko Unibertsitatea, CAF enpresa, Eunate Agirre kirolaria eta Maite Lafourcade legelari, ikertzaile eta irakaslea.

Ekitaldia Bilboko Arriaga antzokian ospatu zen, eta bertan, Sabino Arana Fundazioko lehendakari Juan M^a Atutxak eskatu zuen, “Euskadi berri honetan autokritika egin dezatela eta eragindako kaltea aitor dezatela” indarkeria bidegabeta praktikatutako edo justifikatutako dutenek, eta aldi berean nabarmendu zuen, ETaren erabakia, “berandu etorri arren”, etorri dela batez ere askoren ahaleginaren, borrokaren eta konpromisoaren ondorioz.

Atutxa, era berean, adiskidetzaren bidetik urratsak ematearen alde agertu da, “gorrotoarentzat, herrarentzat eta erresuminarentzat gero eta leku txikiagoa egon dadintzat”.



Beste alde batetik, krisi ekonomikoaren ondorioz egoera benetan larria jasaten ari diren pertsonak asko direla gogoratu ostean, baita azpimarratu zuen ere, ez etsitzera adoretu zuen, bai eta geure historiatik ondoreak ateratzera, hots: “Beste batzuetan gauza izan gara eta oraingoan ere bagara izango”, azpimarratu zuen.

Arriagako oholtzara lehenen igo zuen saritua Maite Lafourcade ikertzaile eta irakaslea izan zen, eta zera nabarmendu zuen: “sari hau nire karrera eta euskal zuzenbideari buruz egin dudana ikerketa-lana buruntzatzen ditu”.

Bilboko Merkataritza Ganbera ere goretsi zen; erakunde horretako presidente José Ángel Corresek adierazi zuen ezen, Ganbera beti egon dela “enpresekin konprometituta”, eta garai aztoratu hauetan “jadanik eraikita dagoenaren gainean eraikitzea”ren alde agertu zen. Era berean, sendotzea aldeztu zuen, “merkatuaren erronkei erantzun argiak emateko”

Bestalde, *Construcción y Auxiliar de Ferrocarriles* (CAF) enpresako presidente José Mari Baztarrikak jaso zuen euskal enpresa horri eman zitzaion saria. Enpresak Euskadin

berton 3.000 bat pertsonari lan ematen diela gogoratu ondoren, adierazi zuen, “Euskadiren ekonomia- eta gizarte-garapenean” laguntzen segituko dutela.

Jaime Oraa errektoreak berak ordezkatuta egon zen Deustuko Unibertsitatea. Errektore jaunaren hitzaldiaren ardatzak izan ziren, Jesusen Konpainiaren unibertsitate horrek azken 125 urteotan 100.000 ikasleri transmititu dizkien balioak, eta beroriek “herrialdearen giza eta ekonomi garapenean bete duen eginkizun garrantzitsua”. Eta ikasle haien artean, Jose Antonio Agirre lehendakaria nabarmendu zuen, oso pertsona funtsezkoa EAJren eta Euskal Herriaren historian.

Sarituetakoa beste bat Eunate Agirre izan zen; familiarengandik jasotako sostengua eskertu zuen, eta berretsi zuen “txapelduna ez dela sortzen, egiten baino”, eta azpimarratu zuen: “argi eta garbi ikusiko dute ikurrina” bera goren mailan lehiatzen den toki guztietan.

Ekitaldia ixteko, Irlandako lehen ministro ohi Bertie Ahern mintzatu zen, ETAk indarkeriari behin betiko uzten ziola jakitera eman baino egun batzuk lehenago Donostian egin zen Nazioarteko Bake Konferentziaren izenean. Nazioarteko bitartekariak gogorarazi zuen, Euskadin “adiskidetze iraunkorrik” ez dela gertatuko “bere kautan, makila magikoari eraginda lez”, ezpada ze, “mailaz mailako prozesu bat, prozesu astun bat, dela. Era berean, azpimarratu zuen, “aribidean den elkarriketa dela bakea eraikitze modurik onena”.

Ildo horretan, euskaldun guztiei eskatu zien, “bakea exijitzen segi dezatela”, eta adierazi zuen, Euskadik, “irtenbide iraunkorra lortuz gero, Europako ekonomiaren motor izateko lain indar duela”.

"Bakeak sariak ekarriko ditu berekin. Oparotasuna eta inbertsioak ekarriko ditu, eta, garrantzitsuena dena, etorkizun hobea hurrengo belaunaldiarentzat. Beraz, mesedez eskatzen dizuet, segi ezazue adiskidetzearen eta bake-eraikuntzaren aldeko lan zoragarriaren bidetik”, esanez bukatu zuen.

Joan den urtarrilaren 29ko ekitaldian egon ziren, besteak beste: EAJ-PNVko lehendakaria, Iñigo Urkullu; Bizkaiko Ahaldu Nagusia, José Luis Bilbao; Bilboko eta Donostiako alkateak, Iñaki Azkuna eta Juan Karlos Izagirre, hurrenez hurren; Bilboko gotzaina, Mario Iceta, eta euskal gizartaren ordezkaritza ugari bat.

Pilar Kaltzada kazetariak arteztu zuen sari-banaketa, eta Golden Appel Quartet taldearen ardura izan zen musika-eskaintza.

10.- DURANGOKO AZOKA

Durangoko Azoka

Aurten ere, abenduaren 6a eta 9a bitartean, Fundazioa berriro egon da, ”stand” batekin, urtero Durangon egiten den euskal liburu eta disko azokan, non salgai ipini baikenituen Fundazioaren argitalpenak.

Beste behin, oraingoan ere oso ona izan da esperientzia.

11.- BESTE ERAKUNDE ETA INSTITUZIO BATZUEKIKO HARREMANAK

Sabino Arana Fundazioak bere izaera zabalagatik zenbait elkarlan gauzatu ahal izan ditu beste erakunde eta instituzio batzuen ordezkariekin, berez egin ohi dituen jarduerakoez gainerakoak, alegia.

Halakoak 2012an hurrengo hauek izan dira:



Orain dela urte batzuez geroztik, dagoeneko ohiko bihurtu delarik, eta Euskadiko *Irmandade de Centros Galego*ekin (Galiziako Etxeen Elkarte) elkarlanean, martxoaren 18an gorazarre egin zitzaion Castelaori, Sabino Arana Fundazioak haren oroimenez eraikitako monumentuan.

Martxoaren 5ean, Matxixako elkartearekin elkarlanean, gorazarre egin zitzaion, Matxixakoko guduan hil ziren Euskadiko Itsas Armada

Laguntzaileko gudari guztiei.

Martxoaren 21ean “Zerutik sua dator” dokumentalaren herririk herriko emanaldiak abiarazi ziren GOAZ museumen. Dokumental horretan 1936-1939 Gerran Bizkaiko zenbait herri jasandako bonbardaketetatik bizirik atera ziren zenbait pertsonaren lekukotasunak jasotzen dira. Ekimen hori Bizkaiko Foru Aldundiak, Sabino Arana Fundazioaren laguntza ere bazuelarik, antolatutako “*Gernika-Bizkaia 1937-2012, 75 urte gogoan*” egitasmoaren atal bat da.



Beste alde batetik, Sabino Arana Fundazioak ere parte hartu zuen, Gernikaren bonbardaketaren biktima guztien oroimenez apirilaren 26an egin zen lore-eskaintzan, bertan zirela EAEko agintariak, alemaniar udal zenbaiten ordezkariak, beste erakunde batzuk eta Gerra Zibileko biktimen senitartekoak eta handik bizirik atera zirenetako batzuk.



Uztailaren 7an Europar Demokraten Alderdiak Fundazioaren egoitzan egin zuen bere urteroko batzarra.

12.- HEDAPENA ETA KOMUNIKAZIOA

Dauden estatistiken arabera, 2012an gure web orriak 77 herrialdetako internauten 18.000tik gora bisita jaso ditu. Ia 55.000 orri (edo bider) kontsultatu dira gure atarian daukagun informazioaren bila.

Gure Fundazioaren web orriak urte honetan, 2011n guztira izandako bisita kopuruari eutsi ez ezik, baita gainditu ere egin du; aurreko ekitaldiaren aldean ia beste 400 gehiago izan dira gure web-ean lehenengo bider sartu diren bisitari berriak.

Web orriak berak duen egiturari eta beraren programazioak eskaintzen dizkigun aukerei esker, Sabino Arana Fundazioaren jarduerak aldizka hedatzen dira informatikoki Mezu@ buletin elektronikoaren bitartez, 7.000tik gora kontaktutara heldu delarik.

Gure edukiak eta zerbitzuak Interneten gero eta gehiago agertze horrek bere isla nabaria izan du jaso dituen kontsulta eta eskarietan; adibidez, Abertzaletasunaren Agiritegiak, web orrian ostatatutako formularioen bitartez, jasotakoak, eta ondorioz orain artean erabilitako bitartekoen (e-posta eta telefonoa) aurretik jarri da.

13.- BURUTUTAKO JARDUEREN EMAITZEN BALIOESPENA

Sabino Arana Fundazioak, bere atalen bitartez, 2012an zehar egindako jardueren artean nabarmentzekoa izan da gure gogoeta eta elkarrizketarako mintzagunean garatutakoa. Aurreko urtean, 2011n, jardueren egitaraua, zati handi batean, Agiritegiaren eta Museoaren funtsak eta materialak GOAZ museum ekintza-gune berrian birkokatzeko eta antolatzeko lanek baldintzaturik egon zelarik, 2012 honetan dagoeneko berreskuratu dugu atal hartan Fundazioak garatu ohi duen jarduera egitekotsu eta emankorra.

Mintegiak, hitzaldiak eta mahai-inguruak gai desberdin askoren inguruan, hala nola: Europar Batasunaren Arrantza Politika Erkidea; Ipar Afrikako herrialde batzuetako iraultzak; Zigor Zuzenbidea ETArek amaietan; Auto elektrikoa; AEBetako lehendakari-hauteskundeak; V. Bilboko Elkarrizketak; XXI. mendeko hezkuntza; Finantza-sistema: erronkak eta aukerak; DBHko, Batxilergoko eta LHko ia 1.000 ikaslerekin izandako elkarraldia, Internetek eta gizarte-sareek eskaintzen dituzten aukerak hartuta mintzagai, eta halaber, haren arriskuez ohartarazteko; “Rethink Euskadi: gure geure eredu bat etorkizuna irabazteko” ekitaldi-sortaren barruan egindako jardunaldiak. Elkarraldi horiek guztiak oso interesaturik aditu zituzten bertaratutakoek, ia denak Agirre lehendakaria aretoan egin zirelarik; hortaz, bada, areto hori dagoeneko finkatuta dago Fundazioaren gogoeta eta elkarrizketarako mintzagunearen jardunaldi-areto nagusitzat.

Horrenbestez, 2012an mintzagunean parte hartu duten maila handiko pertsonen artean aipatu ditzakegu, besteak beste: **Ricard Ramon i Sumoy** Europar Batzordeko Nekazaritza eta Landa Garapeneko Zuzendaritza Nagusiaren administratzailea; **Justo Lacunza** Erromako Arabiar eta Islamiar ikasketetarako Pontifize Institutuko (PISAI) erretore emeritua; **Kheloudja Khalfoun** aljeriar legelari ospetsua; **Juan Luis Ibarra** EAEko Auzitegi Nagusiko mahaiburua; **Juan Calparsoro** EAEko fiskal nagusia; **Joaquín Giménez** Auzitegi Goreneko Zigor Arloko epaile magistratua; **Marc Luyckx Ghisi**, Delors eta Santer-ekin batera, Europako Batzordearen Prospektiben Saileko kidea izandakoa eta gaur egun, Aurovilleko Nazioarteko Kontseilu Aholkulariko kidea; **Juan Tomás Hernani** *European Spallation Source*ko (Suedia) Berrikuntza eta Industriako idazkari nagusia; **Gutenberg Martínez** M. de Cervantes Unibertsitateko

errektorea eta Txileko Diputatu Ganberako, Txileko Alderdi Kristau Demokratako eta ODCAko mahaiburu ohia; **Juan José Álvarez**, EHUKo Nazioarteko Zuzenbide Pribatuko katedradun eta *Globernance*-eko –Gobernantza Demokratikorako Institutua– idazkaria; **Sixto Jiménez**, ekonomialaria, Nafarroako Kutzako kontseilari ohia eta Tutti Pasta SAko presidentea; **Juan Manuel Sinde**, Euskadiko Kutzako zuzendariorde nagusi ohia; **Costas Andropoulos**, Europar Batasuneko Turismo arloburua; **Anne Glover** Europar Batzordeko aholkulari zientifiko nagusia; **Juan Carlos Belloso**, nazioarteko aditua estrategian, branding-ean eta nazioarteko sustapenean; **Iván Martén**, BCGko (Boston Consulting Group) *Senior Partner & Managing Director* eta BCGren Energia Bulegoko mundurako zuzendaria; **Alberto Peña**, Tecnalia Automocióneko produktu elektronikoetako gerentea; **Enrique Monasterio**, IBIL ibilgailu elektrikoan birkarga-kudeatzaileko zuzendari nagusia; **Alex Gibelalde** Google Spain-eko Produktuaren Marketin Saileko arduraduna; **Maialen Garmendia**, Soziologiako doktorea, EHUKo Soziologia Saileko irakasle titularra eta *EU Kids Online Spain* lantaldeko zuzendaria, eta maila horretako beste asko egon ziren, euren gogoetak utzi zizkigutelarik aztertutako gai ugarietaz buruz.

Azpimarratu behar da, bestalde, gure deialdiak irekiak izaten direnez, euskal gizarte osoa dela gure jardueren onuradun. Gogoeta eta elkarriketarako mintzagunearen hitzaldiek eta mahai-inguruek, batez beste, 150etik gora entzule izaten dituzte, eta mintegiei dagokienez, berorietan aztertzeko hautatutako arlo bakoitzeko 30 eta 40 bitarte adituk parte hartzen dute.

Agiritegiari dagokionez, haren funtsak antolatuta eta deskribatuta daude dagoeneko, eta ikertzaileen eskura daude. Bilbo erdian kokatuta egon izanak ekarri du bisitari kopurua zein gure instalazioetan egindako kontsultena handiagoak izatea.

Bestalde, GOAZ museum – Euskal Abertzaletasunaren Museoa, behin egitamu museologikoa gertatuta, egitamu museografikoa prestatzen ari da, egitamu museologikoa aplikatzeko proposamena egikaritzen, alegia.

Bien bitartean, Museoak bere jarduera aurrera eramaten daragoio, batez ere piezak katalogatzen, ehungintza-funtsak zaharberritzen eta argazki-artxiboa artatzen (erregistratu, katalogatu eta geure zigilua ipini, hedabideei arreta eskaini, etab.).

Bestalde, HERMES pentsamendu eta historia aldizkariaren beste hiru zenbaki argitaratu dira; guztira, 42 dagoeneko.

Hamabi urte honetako esperientziak eta jaso ditugun iritziek eta iruzkinek orain artean izan dugun ildoari eustera adoretzen gaituzte, hots, elkarriketa eta debate ideologikorako tresna gisa, pertsonen eta herrien askatasunerako eskubidea, bai halaber gizarte- eta politika-taldean askatasunerako eskubidea berrestera, eta hori guztia, autodeterminaziorako eskubidea herrien askatasun politikoaren adierazpide dela onetsi eta agertzeaz batera, eta, era berean, euskal gizartearen izaera anitza bereganatuz; izan ere, gainera, hark abertzaleaz bestelako politika eta gizarte agerpenak aintzatestea exijitzen du.

Dagoeneko finkatuta dagoen gure beste kultur jarduera bat Sabino Arana Sariak dira; Fundazioak sari horiek bere jarduerekin hasteaz batera, 1988an, eratu zituen. Hastapeneko nahia eta oraingo asmoa ber-berak dira, hau da, gizarte zerbitzatzeko jorاناتatik eta horretan ipinitako gogo biziagatik nabarmendu diren erakundeei zein

norbanakoei omenaldi zintzo eta bihotz-bihotzekoa eskaintzea besterik ez.

Sabino Arana Sariak urterik urte, huts egin barik, eman izanak sendotu eta sustraitu egin du saria, zein Sabino Arana Fundazioko kideek eman ohi baitiete, egindako lanagatik gailendu diren kolektiboei eta bakoitzak xede izan duen kausaren alde egindakoagatik nabarmendu diren pertsoneri, euren esker onaren erakusgarritzat.

Bide horretan, bada, Sabino Arana Fundazioak baditu gizarte zein politika arloetako oso gizarte-oinarri ugari eta askotariko baten aintzatespena eta sostengua.

Kultura-gertakari horretara batez beste 1.000 bat pertsona etortzen dira urtero.

Beste alde batetik, beste erakunde eta instituzio batzuekiko harremanez denaz bezainbatean, haietariko hainbaten (Euskadiko *Irmandade de Centros Galegos*, beste fundazio batzuk, udalen nahiz diputazioen ordezkariak, zenbait ikastetxe, Europar Demokraten Alderdia, etab.) ekitaldietan parte hartzen dugu gogara.

Emandako zenbaki eta datuen argitara, uste dugu, behar bezala bete ditugula aurreikusitako asmoak eta helburuak.